



BALIO PROPOSAMENA

Lesioen arazoak

1. **Errendimenduan eragina:** Lesioek zuzenean eragiten dute kirolarien errendimenduan, mugikortasuna, indarra eta arintasuna murrizten. Horrek zailago egiten du entrenatzea eta maila altuan mantentzea, bereziki arazoa da kirola egitean.
2. **Berrerorapenak eta lesio kronikoak izateko arriskua:** Behar bezala tratatzen ez diren lesioak gero aurrerari begira kalte izan al du kirolaren errendimenduan bere etorkizunean eta bere lesioa ez da berreskuratu berreskuratu behar izan duen bezala. Horrek lesio kronikoak izateko arriskua handitzen du.
3. **Kostu ekonomikoak:** Kirolarientzat, lesioak oso garestiak izan daitezke. Tratamendu eta osasun-gastuak oso garestiak direlako, honetaz gain diru-sarrerak ere galtzen dira lehiaketetan ez duzulako parte hartzen.
4. **Ondorio psikologikoak:** Lesioek kirolarien osasun mentala ere kaltetzen dute. Konpondu ezin daitekeenak, berriro lesionatzeko beldurra frustrazioa, antsietatea eta depresioa sortu al da. Berreskuratze-prozesuak, kasu honetan, alde fisikoa eta mentala landu behar dira. Kirolari bakoitza berreskurapen fisiko bat eta mentala ere ondo ekartzea ondo egongo lirateke.

Fisioterapeuten garrantzia

1. **Berreskuratze azkarra eta eraginkorra:** Fisioterapeutak lesioen berreskuratze-prozesuan oso garrantzitsuak dira. Errehabilitazio programak diseinatzen dituzte, kirolariak mugikortasuna eta indarra berreskuratzeko.
2. **Etorkizuneko lesioak prebenitzea:** Fisioterapeuta batek lesioak tratatzeaz gain, prebenitzen ere ñagundu behar du. Hau funtsezkoa da inpaktu handiko kirolatan. Fisioterapeutek indartze-arietak eta luzaketa-teknikak erakusten dituzte, eta, gainera, jarrera eta mugimendu egokiak aholkatzen dituzte lesioak ez izateko bere etorkizunean.
3. **Mugimenduaren eraginkortasuna hobetzea:** Fisioterapeutek, kirolarien mugimenduak eta biomekanika hobetzera laguntzen dute. Hori oso garrantzitsua da haien teknika hobetzeko. Horrek errendimenduan eta lesioen prebentzioan laguntzen du.
4. **Laguntza integrala:** Errehabilitazioak eta fisioterapiak ez dute bakarrik fisikoa ukitzen, lesio baten alderdi emozionalak kudeatzen laguntzen dute kirolariei. Prozesu osoan konfiantza eta laguntza eskaintzen dute kirolariei.



ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola

2024-2025 ikasturtea

Batxilergo 1: Ekonomia

Canvas eredu - Balio proposamena

Fisioterapia, funtsezkoa da kirolariak ahalik eta baldintza fisiko hoberenetan mantentzeko, eta oso garrantzitsua da lesioen arriskuak minimizatzeko eta kirol-errendimendua hobetzeko.

Deportisten fisioterapia-enpresa bat sortzea aukera baliotsua da kirolaren munduan sartzeko eta betetzeko, zerbitzu espezializatuak eskaintzeko, lesioak tratatzeko eta prebenitzeko ere balio du.

Zergatik sortu deportisten fisioterapia-enpresa bat?

- 1. Eskari Handia:** Kirolariak, batez ere modu erregularrean entrenatzen eta lehiatzen direnak, lesioen arrisku handiak izatea oso handiak dira. Maila altuko kirolariek eta osasunerako kirola egiten dutenek fisioterapia zerbitzuak behar dituzte berreskuratze eta beraien errendimendua hobetzeko.
- 2. Prebentzioa arrakasta kirolerako gako gisa:** Gaur egun, kirolari askok ez dute bakarrik lesioetatik sendatu nahi, baita prebenitu ere. Prebentzio ikuspegia kirolariek beren errendimendua hobetzen laguntzen duelako.
- 3. Merkatuan diferentziazioa:** Fisioterapia-klinika gehienek lesioen berreskuratze orokorra eskaintzen dute, baina gu diferentziatzen gara gure zerbitzuak espezifikagoak direlako, bakarrik kirolarientzako izango direlako.
- 4. Klubekin eta entrenatzaileekin kolaborazioaren abantailak:** Espezializatutako fisioterapia-enpresa batek kolaborazioak egin al du kirol klubeekin, gimnasio eta entrenatzaile pertsonalekin zerbitzuak elkarrekin eskaintzeko. Lankidetzaren honi esker, kirol errendimenduan interesa duten bezero gehiago izan ditzakegu.

Zergatik da enpresa hau errentagarria?

Deportisten fisioterapia-enpresa bat sortzea ez du bakarrik merkatuan behar bat betetzen, baita negozio eredu errentagarria bat ere eskatzen dira fisioak eta errehabilitazio zerbitzuak. Gainera, sektorean ondo kokatuta dago kalitate handiko zerbitzuak prezio handiago batean egitea ahal izango ditugu.

Enpresa hau kirolarien eta klubaren aliatu nagusia bihurtuko da, beren osasun fisikoa zaintzeko eta errendimendua hobetzeko. Horrek kirolaren merkatuaren barrua lehiatzeko abantaila emango die.